

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

41. zk. 1996ko maiatza

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



elkartasun BIDAIAK

96ko maiatz

geu gasteiz
aldizkaria

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

**Erredakzio-
batzordea:**

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrazkiak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.

(ZUBILLAGA, OÑATI)



POZEZ GAINEZKA

gaude. Mila esker, alkate jauna, mila esker urte eta erdiz horiekin lanean aritu garenon esperantza guztiak aseko dituen euskararen udal ordenantza garaiz aurkezteagatik; mila esker, zeren eta, inozoak gu, prozesu luze honekin hasi ginen garaian, ezin baikenituen imajinatu beronen eskuzabaltsunetik erdietsiko genituen lorpenen kantitate eta garrantzia.

Izan ere, duela urtebete talde politiko guztiak udal ordenantzetarako zirriborroa adostu genuenean proposamen xume batzuk baino ez genituen buruan, eta ezin genuen espero hainbeste hobe eta perfektiona zitezkeenik. Gure testua 29 artikulukoa zen eta bere xede nagusia honoko hau zen:

“Euskara Gasteizko udalerriko hizkuntza ofiziala dela jakinda, Euskararen Legeak udalari, euskararen ezagupena bultzatzeko eta horren erabilpena sustatzeko ahalmena ematen diola jakinda, eta estatuko konstituzioak hizkuntzaren inguruko arrazoiengatik ezin dela inolaz ere inor baztertu agintzen duela jakinda, Gasteizko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko borondatea agertzea, horren konprometua adieraztea, eta gauzatze ko zenbait neurri zehaztea”.

Konprometzu hori zela medio, Udalak, euskararen

Alkate Jauna: mila esker hain zintzo jokatzearagatik!

egoera diglosikoaz arduratuta, bere ezagupena eta erabilera bultzatuko zituen bere barne funtzionamenduan, beste erakundeekiko harremanetan, bere argitalpen, idazki eta inprimaketan, bai eta hiritarren arteko harremanetan ere. Horretarako plan bat egingo zuen, behar beste ekintza, programa eta baliabide arbitratuko zituen plan honen garapenaz arduratzeko Euskara Batzordea sortuko zuen. Mandoaren egunsentiko puzkerrak, alegia.

Baina gobernu taldea eta bere burua den alkatea, beti gure hobe beharrean, berehala konturatu ziren ordenantza horiek prosaikoegiak izango zirela; zehaztapen gehiegi jartzen genuela ikuspegi orokorraren kalterako; printzipioak jakintzat ematen zirela eta garrantzi gehiegi ematen geniola praktikotasunari; azken batean, guk, hain materialista den sasoi honen seme-alabak izanik, lege eta ordenantzen espiritua baztertzen genuela.

Nork ote daki euskara Gasteizko hizkuntza ofiziala dela, nork hizkuntzagatik ezin dela inor baztertu, nork Gasteizko Udalak gai honen inguruan ekintza positiboak egiteko ahalmena duela, nork irakurri ote ditu euskararen legea eta konstituzioa, eta nork irakurri ote den lurralde batean 29 artikuluko

ordenantza bat?: inork ez.

Horrexegatik guk aurkeztutako testua, talde politikoe-kin osatu genuena, hobetu beharrean zeuden. Ulertuko genuelakoan ez zen gurekin hitzegiteko beharrik ikusi eta zuzenean jo zuten ordenantza hobetzeri. Mila esker ez molestatzearagatik. Horretarako, 29 artikuluko bederatzi bihurtu ziren; plangintza, programa eta ekintza guztiak desagertu ziren; hauek desagertzen badira segimen batzordeak ez du zentzurik, beraz, kendu. Funtsezkoa baino ez zen garatu, euskararen legetik harturiko zenbait artikuluren hitzez hitzezko transkripzioa, Udalak neurri batzuk hartzeko ahalmenaren aipua, eta gure zirriborroari faltza zitzaion ikutu europarra.

Emaizta denon eskuetan dago: Udal ordenantza ezin hobeak. Ez dute ezertara behartzen baina ez dute ezer kanpoan uzten. Ez dute diru partidariak eskatzen, baina gai honetan Udalaren jarrera ikusita ez dago kezkatu beharrik: Udalak antolatuko dituen proiektu guztiak egiteko adina diru egongo da eta. Ez da borondaterik aipatzen baina azken 15 urteetako udalaren iharduera aztertzea baino ez dugu lasai geratzeko.

Jose Miguel Reguero
Arabarron Elkarguneko
partaide

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

GEU GASTEIZK ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzukizunik

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

Superjaiak

BILBON BADUTE superportua, Donostian super-hondartza eta Iruñean, hiria famatu duten super-entzierroak. Horiez gain, guztietan izaten da jaigiroan ospatzen den "Aste Nagusia".

Ezin esan daiteke Gasteiko jaiak eta super-Zeledon, ospetsuak eta ezagunak ez direnik, baina jaiegunek ez dute inondik ere astea betetzen.

Kontuak-kontu, jaiak dibertsiozko ekitaldi-multzoen garaia izaten dira: jan-edanaz, musikaz, dantzaz... betetzen diren egunak, alegia. Dena dela, dibertitzea helburu duten ekitaldi horien guztien antolaketak diruaren premia izaten du eta dirua beti arazo. Jaietan etekin handienak tabernari eta ostalarientzat izaten dira; jaien antolaketarako gastuak, berriz, Udalaren kontu dira.

Aurten Gasteizko jaiak 6 egunetakoak izan daitezke. Nola ikusten duzu hori?

Nork finantziatu beharko lituzke gehitutako eguneko ekitaldiak?



OLATZ GOIKOETXEA
ikaslea

- 1.- Nahiago dut sei egun izatea, horrela ondo pasatzeko denbora gehiago izango dugu eta.
- 2.- Nire ustez bi aldean artean ordaintzea izango litzateke egokiena.



Bertsoak

Maiatza

EGILEA:

Eneko Parra

DOINUA:

Leihu ertzetik

Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Denboran zehar pausatu gabe aurrera doa bizitza
Ezin geldituz behingoan ere erlojuaren orratza
Orainaldiak iraganaren ondorioak dakartza.
Segunduen doinu hotsa hilen joatearen dantza
Eguzkipean apirilari ari da hurrena bultza
Hezetasuna gordeaz dator aspaldi batez Maiatza.

Mendietako elur txuria jadanik berdez jantzita aurkezten digu bere soinen kolore argi polita.
Lanbroetako giro iluna berriz berpizten hasita.
Eguzkiaren bisita zeru urdinaran itsatsita.
Ta urteroko gauza berbera egiten da errepika.
Udaberriak asetzen ditu Maiatzean bere irrikak.



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA
kalea • S. Franciscoren kantoiaren

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ



ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideoa industrialak
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



DORLETA BERZOSA
ikaslea



MIKEL SAEZ
kazetaria



KARLOS DRONDA
kazetaria



MARISOL SAN PEDRO
etxekoandrea



MANUEL ZUBIA
gidaria

1.- Oso ondo iruditzen zait jaiak luzatzea. Alde batetik, aurreko larunbatean bukatzen direlako eta bestetik, gehiengoaren nahia asetuko litzatekeelako.
2.- Denon artean ordaindu beharko litzateke. Hau da, parte hartzen dutenen artean: Udala, ostalariak, blusa koadrilak...

1.- Nik ondo ikusten dut, eta luzatzekotan larunbatean izan behar du.
2.- Udalak berak, denok zergak ordaintzen ditugu eta zerga horien bitartez ere jaiak ordaindu behar dira.

1.- Nire aldetik ondo ikusten dut, jai egun bat gehiago beti ondo etortzen delako.
2.- Printzipioz Udalak ordaindu beharko luke, baina kontuan hartzekoa da komertzianteeek interesak dituztela eta nolabait zeozer jarri behar dutela.

1.- Ideia ona iruditzen zait, batez ere ostalariak-eta etekinik ateratzen badute.
2.- Jaiakin irabaziak lortzen dituztenak ordaindu beharko luketela iruditzen zait. Gainera, nire ustez, prest egongo lirateke egun horretako gastuak ordaintzeko.

1.- Asteburuan bukatzen denez, merezi du aurreko jaiak luzatzea, baina, bestela, dauden jai egunak nahiko direla uste dut.
2.- Hitzegin beharko lukete ostalariak eta Udalak. Izan ere, ez da gauza bera taberna erdi-erdian edo jai egunetik urruti izatea.



postariak ekarria

Harritzekoa iruditzen zait Geu Gasteiz aldizkariaren azken alea aipamen txikienari ez egitea egunotan Gasteizko euskaldunok ikutzen gaituen gai garrantzitsuenetarikoa batez, hau da, Euskararen Udal Ordenantzen inguruan sortu den arazo zahar-berriaz ezertxo ere ez aipatzea. Harritzekoa eta, neurri berean, kezkatzekoa ere, hain zuzen ere euskaldun eta euskaltzale guztiok urteetan zehar erreibindikatzeko ari garen euskararen normalizazioaren kontrako beste eraso maltzur bat baita Cuerdo Jaunak egin berri duena: Euskaltzaleon Elkartegarekin adostutako ordenantzak bazterrean utzi eta hauen orde ezertara behartzen ez duen intentzio deklarazio demagogikoa aurkeztu. Eta, dirudienez, berriro euskararen normalizazioa Gasteizko udalerrian beste hamar urtetan atzeratu dezakeen eraso honek ez du merezi ezta orrialdetxo bat Gasteizko euskaldunon aldizkaria den honetan. Bai, ordea, Baskoniak lortutako arrakastak edo-ta Centro Extremeñoaren gorabeherak!! Benetan, ulergaitza oso suertatzen zaidala.

Nik neuk ere oso garrantzitsutzat jotzen ditut euskaldunon konpaktazioa eta batasuna, indarra beti jarriaz batzen gaituenean, are gehiago gure Gasteiz erdaldun honetan. Baina, arren, ez gaituzten engainatu. Gasteizko euskaldunok ditugun arazo larriak eta egun-egunero pairatzen dugun gure hizkuntz-eskubideen bortxa ez dira desagertuko, ezta konponduko ere, ostrukarena eginaz. Bide luzea daukagu oraindik aurrerantzean, euskararen etsaia nahikotxo eta indartsu dira, etengabe legeriak aitoritzen dizkigun eskubide teorikoak urratzen dituzte legeria hori berori garatu beharko luketen instituzioek. Eta egia bada ere bide luze horretan jende asko (hasi haren hementika barreiatutik dauden euskaldunekin, segi erdal euskaltzaleekin eta bukatu euskararekiko indiferenteak diren erdaldun askorekin) euskararen etxe amankomunera erakarri behar dugula eta horretarako ezinbestekoa dela euskararen aldeko mezu positibatzailak garatzea, hori bezain egia da bide horretan eraso piloari aurre egin beharko diogula, umorez eta alaitasunez batzutan,

indarrez eta haserrez bestetuz. Eta horixe da, hain zuzen ere, azken bolada honetan euskaldun eta euskaltzale askori ahaztu omen zaien: udal aurrekontutik euskaltegiarako diru apurra ofizialki desagertu eta nahikoa da zinegotzi erdaldun baten ahozko promesa zehazgabea ("se sacará dinero de otra partida"). guztiok lasa gaituzten, ezer gehiago galdetzeko (Nondik? Zenbat? Zeren arabera? Aurtengo kopurua beharren arabera gehitzeko aukerarik egongo da?...). Cuerdoak, 13 urte ezer egin barik egon ostean, urtebete t'erdiko lanaren ondoren adostutako ordenantzak zakarrontzira botatzen dizkigu eta, erreibindikazioa areagotu beharrean, badirudi halako Patu fatalistak joak edo, erabat galdutzat ematen dugula borroka hau, betiko burubero-fundamentalistak ezik.

Bukatzeko, bi galdera, nahi duenak hausnartu edo-ta erantzun ditzan: Hain merkea da etengabe euskaldunoi iruzur egitea? Zeren beldur gara gehiena lortzeko daukagunok?

XABIER URRAKA
ERREXALA IRTZI TALDEKOAK

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Bikotean elkarbizitza (II)

HEMEN GAITUZUE, berriz ere, gai honi dagokion borobiltasuna lortu nahian.

Gaur egun indarrean dugun konstituzioan ez daude parekatuta ezkontza-elkarbizitza eta ezkontza-gabeko-elkarbizitza.

Konstituzioak bere 32. artikuluan ezkontza-elkarbizitzari berezitasuna ematen dio, eta horregaitik, ezin ditzakegu diskriminatzailatzat eman, 14. artikulua araberak elkarbizitza mota bien artean dauden ezberdintasunak.

Eztabaidagarria izan daiteke baina, nire iritziz apalean, 32. artikuluan ez zaio agintzen parlamentuari ezkontzen inguruko arautegi berezi bat sortzea; baina aldi berean esan behar da, ezin dakiekeela ezkongabekoei, ezkonduci dagozkien legeak besterik gabe aplikatu, konstituzioak ez baitu horretarako eskubiderik ematen; are gehiago, ezkongabekoen borondatearen aurkakoa litzateke, zuzen-zuzenean ezkonduci dagozkien legeak aplikatzea, beren kabuz eta askatasunez ez dute eta ezkontza hautatu beren elkarbizitza arautzeko.

Esanak esan, argi utzi nahi nuke, gure konstituzioak ez duela ahaztu ezkongabe sor daitekeen elkarbizitza, batez ere, 39.1 artikuluan, familia edo sendi kontzeptua ez du ezkonduentzat bakarrik erabiltzen, alderantziz familia kontzeptu zabalagoa darabil artikulua horrek. Horrexeagatik, gure agintari publikoek konstituzioaren agindua bete gabe daukate. Ezkongabeko bikoteak

(g i z o n -
e m a k u m e e k
n o s k i)
eskubide osoa
dute herri-
agintetik,
l a g u n t z a



ekonomikoa, soziala eta legearekiko izateko, nahiz eta laguntza hori ezberdina izan ezkonduen konparatuz; normalean zerbait txikiagoa.

Gure konstituzioak erabiltzen duen familia kontzeptuan, pentsa genezake laguntzarik txikiena familiarentzat seguritate sozialeko pentsioak liratekeela. Horrexeagatik ez nago batere ados konstituzio-epaitegiak hartu zuen erabakiarekin, berrogei urte elkarrekin bizi izan ziren bikote batekin, pentsio hori ukatuz. Bestalde, ez da derrigorrezkoa pentsio hori eta alargun bati dagokiona berdina izatea, lehen esan ditugun arrazoiengatik.

Beste hainbeste esan beharko nuke herentziari buruz (testamenturik gabekoa noski), ez dago esku-biderik herentziarik gabe uzteko elkarrekin bizitza leiala eta iraunkorra izan duten bikoteei.

Azkenik, demokraziak oraindik ez du arautu gaur egun garrantzitsua den gai hau eta injustizi iturri da, garbi gelditu den bezala. Demokrazia, gehiengoaren agintea omen da, baina gutxiengoak kontuan izanik eta, batez ere, injustiziak deuseztatuz, gure elkarbizitza egunetik egunera justuagoa eta askeagoa izan dadin.

Alberto Ansola

Pazientzia bat izan !

HILERO LAUGARREN

orrialdearen ezker aldeko ertzean aldizkaria etxean jasotzeko bete behar den galde-agiria argitartzen dugu eta bere azpian ohartxo bat. Honez gero ohartuko zinetenez, Bejondeigula dioen laukitxo horretan, hilak joan eta hilak etorri, pazientzia izateko eskatzen dizuegu aldizkaria etxean jasotzeko zain zaudeten guztioi. Tamalez, ale honetan ere erretolika berberarekin gatozkizue.

1992an, aldizkariaren asmoa abian jarri zenean, 3.000 etxetara bidaltzen genuen esku artean duzun aldizkaria. Bi urteren buruan 5.000 harpidedun izatera heldu ginen eta orduko tirada %10 igotzea erabaki genuen, etxe guztietara sartzeko asmoz. Urtebeteko epe laburrean, ordea, jende ugari egin digu aldizkaria etxean jasotzeko eskaria eta berriz ere tirada handitu beharrean aurkitzen gara.

Une honetan 400 izenetik gorako zerrenda daukagu ordenadorean sartuta euren

txanda noiz iritsiko zain eta egunean-egunean, gainera, eskari berriak iristen zaizkigu.

Hau ikusirik, eskaria egin duzuenok aldizkaria etxean jaso dezazuen, ezinbestekoa zaigu tirada handiagotzea. Eta hortxe sortzen da arazoa. Zenbat eta ale gehiago kaleratu inprentako gastuak ere handiagoak izaten dira eta orain arteko diru sarrerak ugaritu ezean ezin izango diogu erronka horri guk nahi bezala erantzun.

Gure diru iturri nagusiak hiru dira: Geu elkarteko bazkideen kuotak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak eta publizitatea. Diru iturri hauek ugaritzea edota berriak sortzea premiazkoa dugu aldizkaria hazi eta sendotzeko. Ahalegin horretan, piskanaka-piskanaka iragarki eta bazkide berriak lortzen ari gara. Erakundeak dagokionez, berriz, beste hainbat erakunderekin elkarriketak ere izan ditugu azken boladan, hortik dirulaguntzaren bat etor liteke, baina momentuz ezinezkoa zaigu aurrera jotzea.

Arazo honi behin-betiko

Muskulazio-gela eta gela kardiobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrek inharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



KIROLDEGIA

CENTRO DEPORTIVO

C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

apur



irtenbidea aurkitu bitartean, beraz, eskari bat egin nahi dizuegu. Zuen etxean aldizkari bat baino gehiago jasotzen baduzue, bihotz-bihotzez eskertuko genuke jakinaraziko bazenigute. Modu horretan aldizkari bakarra bidaliko genuke etxe bakoitzera eta orain

zain dagoen hainbatek aukera izango lukete aldizkaria jasotzeko.

Badakizue, hortaz, berriz ere, pazientzia apur bat izan!

*Erredakzio
Batzordea*

Labela

Aspaldi honetan bada zeresanik ugari "Label" hitz ospetsuaren inguruan. Propagandaren indarrez saldu nahi digute guzita: Errioxako ardoa dela, Arabako patata dela, Gernikako piper berdeak direla... edo ez dakit nik nongo zereko zera dela... Denak dute "Labelaren" txartel preziatua.

Baina gure baserritarrak, bereziki abeltzainak, lehendik lasai ez bazeuden ere, urduritasunak harrapatuak ditugu. Okelaren salmenta tasa goitik behera dihoa eta hori berez gogorra ez balitz, kiloaren prezioa (harategietan lehen bezala jarraitzen du) erdira jaitsi diete. Eta guztia Britainia Handiko "Behi eroen" arazoa dela medio. Irla berezi haietako abelburuak erotu eta hil egiten omen dira eta okela hori dastatzen duen gizakia ere berdin, erotu eta hil.

Gaisotasun hau aspaldidanik omen dator gainera, hamar bat urte ba omen daramatza jardunean, orain arte ezagutzero eman ez bada ere. Zenbat ote, tarte horretan, haragi hori irentsi dutenak? Britainia Handia urruti

samar ikusten badugu ere, Euskal Herriraino trumoi indartsu gisara heldu zaigu eta okela jaleak, hein handi batean behintzat, kezkatuta eta beldurtuta aurkitzen omen dira.

Abeltzainak berehala ohartu dira, ikulueta abereak saldu ezinean edo saltzekotan prezio irrigarrietan egitera behartuak baitaude, dirua galduaz.

Hori dela eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartek bertako okelarentzat "Labela", eskatu du eta duten arazoaz herria jabetu dadin, zer eta martxoaren 15ean, astelehena, Gasteizko Plaza Berrian 600 kilo okela banatu zituzten hamaiketako gisa. Dohainik eta labela duen Errioxako ardoarekin lagunduta. Benetan ekintza txalogarria.

Abeltzainen eskariarekin bat eginez, ea "gure" okela eskatzera ohitzen garen, "behi eroen" arazoa alde batera utzita. Horrela okela bikaina dastatzeaz aparte, gure baserritarren zama zertxobait arintzen lagun genezakeelakoan... Amen!

Abel Enbeita



★
-Z
TABERNA
R
A
IATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Rikardo Uralde

«HIRI IDEALA DELA DIOTE BAINA HONDARTZA FALTA
ZAI O GASTEIZI»

Nor da?

- ❑ Rikardo Uralde Rubio Gasteizen jaioa da, 1.962ko abuztuaren 4ean. “Uste dut Leo naizela; uste dut. Ez dut irakurtzen, ez zait inporta. Ulertzen dut jendeak bere etorkizuna ezagutu nahi izatea baina...”.
- ❑ Adurtzan bizi da. “Auzoa ondo dago. Lasaia da eta ez nuke beste auzo batez aldatuko”.
- ❑ Gurasoekin bizi da. Gasteizkoak dituela dio. Nire harridura: “Gasteizkoak?”. Eta orduan, zehazten nahiz zuzentzen du: “Aita Betoñokoa, ama Lezakoa”. Eta ez dakite euskaraz, bistan denez. “Dena dela, aita linotipista zen eta euskaraz idaztea eta inprimatzea zen bere lana, gramatikak eta antzeko liburuak”.
- ❑ Adurtzan bertan hasi zen euskaraz ikasten. “Bertako gizarte-etxean batzordeak eratu zituzten. Tartean, bat euskaraz ikasteko. Gero, IKAn ere ikasi nuen”.
- ❑ Berroztegieta egiten du lan. Zolegi inprimategian. “Berroztegieta, 24. Hartu gure telefonoa ere: 130562. Roberto



Elorza eta biok ari gara”. Biak dira euskaldunak eta halaxe ezarria dute ere: “Hemen Euskaraz”.

- ❑ Musika du afizioetan bat. Klarineta ere jotzen du. “Samaniego abesbatza ere kantatzen dut. Euskaraz kantatzen dugu gehiena baina geure arteko harremanak gaztelaniaz dira”. Pilotan jokatzea ere maite du, eta idaztea. ““Eibar” hilabetekarian idazten dut”. Gaztelaniaz, zeharo jori eta aberats darabil hizkuntza, guk irakurri izan diogun artikulua erakusten duenez.

Duzun biziorik handiena?

Erretzea. Gehiago erretzen dut asteburuetan astegunetan baino. Hala ere, hamalau bat zigarro egunean bai. Irudi txarra du -gazteen artean, batez ere-, baina bizioa ere handia da-eta...

Eta bertutea?

Bestek erantzun beharko luke hori.

Zer eskatzen du herriak?

Egia, hipokresiarik gabe.

Zer eskatzen diozu zuk zeuk bizitzari?

Lana eta askatasuna.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

Gasteiz-Vitoria..

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Tu Invernadero
Zure Lore Sortak

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Jeniorik bai al duzu?

Bai. Ez dut erraz ateratzen - akaso nire lankideak erantzun beharko luke hori ere-, baina uste dut ezetz.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gobernuek eta politikariek.

GEU elkartearen berririk bai?

Bai. Euskal kultura bultzatu nahi dute eta aldizkaria ere badute...

Egunkariaren bat?

Gutxitan hartzen dut. Erosten dudanean, "El Mundo del País Vasco" eta "Egin".

Telebista programarik?

"Cifras y Letras".

Oporrak non?

Kuban.

Etxeko lanak noren kontura?

Ez daukat denborarik etxeko lanak egiteko.

Jaki goxoren bat.

Makailaua pil-pilean.

Filmeren bat?

"Tierra y Libertad". Ez naiz zuzendariaren izenaz gogoratzen. Duela urtebete ikusi nuen.

Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

Ia-ia guztia. Boteretik hasiko nintzateke. Hala ere, hori ez litzateke egongo pertsona bakar baten gorabeheran. Jendeak esan behar du.



Liburu gomendagarriren bat? Idazleren bat?

Hara, irakurtzea da nire lana eta askotan oso nekatuta nago liburuak irakurtzeko; gogorik ez dut izaten. Dena den, irakurri dudana azkena "Grandeza y riesgo de la utopía" izan da, Che Guevarari buruzkoa. Oso liburu on eta objektiboa.

Idoloren bat?

Ez da idoloa, baina merezi du haren gauzarik onenak hartzea: Che Guevara.

Zer nahiko zenuke jendeak zutaz esatea zu hil eta gero?

"Jendea hil egiten da baina gauzek iraun egiten dute".

Zer zinateke inprimatzaile ez bazina?

Kazetaria, arazoak oso hurbiletik bizi dituzte-eta.

Gasteizen biziko ez bazina?

Donostian.

Gasteizek duen onena?

Hiri ideala dela diote. Ongi egituratuta dago, baina Donostia politagoa da; hondartza falta zaio Gasteizi. Gasteizek hondartza izango balu, Donostia bezain eder izango litzateke.

Nolakoa litzateke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Berdin-berdina izango litzateke.

Zertarako daude gobernuak?

Oso luze litzateke erantzutea, baina labur esatekotan: ezertarako ere ez, asko hitzegiteko.

Zertan da emakumearen berdintasuna?

Gizon-emakumeak berdina dira adimenez, anatomiaz ez baina.

Euskal Herriak duen arazorik larriena?

Historia bera du arazo. Egun,

euskaldunen arteko konfliktua bera ere arazo da. Eta konpontzekotan, hitzeginez konpondu behar da.

Zer da 0.7?

Udalak Hirugarren Munduko herriei eskaintzen dien diru bat. Ez da nahikoa, baina gure herrian bertan ere bada hainbat arazo, lehenago konpondu beharrekorik.

Zoriontsu bizitzeko sekretua?

Norbera izatea.

Zein galdera nahi zenuke nik zuri egitea?

"Zein da nire futbol taldea".

Zein da zure futbol taldea?

Alaves-a.

Baskonia ala Alaves?

Alaves.

Miel Anjel Elustondo

**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

24 ordu klaseak ematen

hil honen 8ko eguerdiko hamabietan hasita, Gasteizko Historia eta Filologia Fakultatean 24 orduz segidan klaseak ematen arituko dira. Era honetan, fakultate honetako 'Tibulus' talde antimilitaristak, inhabilitazioaren bidea erabiliz, intsumituak zigortzen dituen kode penal berriaren kontrako protesta burutuko du.

"Militarismoaren inguruan hainbat lezio" lelopean EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko hogeita hamarren bat irakaslek, gau eta egun, beren asignaturak militarismoz tintatuko dituzte edozein ordutan hurbildu nahi duen ikasleentzako; besteak beste, "Gastu militarrek historian zehar" edo "Emakumeak eta militarrek" bezalako eskolak entzun ahal izango dira klase-egun berezi horretan.



TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

BERE OLERKIETAN militarrek kritikatzen zituen Tibulus idazle latindarraren izena hartu duen talde antimilitaristak antolatuta, Gasteizko Historia eta Filologia Fakultateak egun oso bat (gaua barne) emango du Areto Nagusian militarismoaren alde ezberdinak aztertuz.

Urtero gauzatu ohi den aste antimilitaristaren ordean, aurten Tibulus taldeak "betikoa" gairitu nahi izan du, hilabete honetan bertan, indarrean sartzen den kode penal berriaren kontrako jarrera erakusteko. Bidean, "antimilitarismoa azter dezakegu ikasten ari garen gaiei loturik", azaltzen du prestaketa lanetan dabilen Ainhara Estarronak.

Egun antimilitarista honen lehendabiziko hitzaldia Sahalaketako kidea den César Manzanosek emango du kode penal berriaren gorabeherak jorratuz. Parte hartuko duten beste batzuren artean Antonio Duplá, Joseba Andoni Lakarra eta Lourdes Oñaederra irakasleak daude; antolatzailerak Txillardegi ere ekartzeko ahaleginetan dabilta eta baliteke Gasteizko Alkatea, José Angel Cuerda, bertan aritzea ere. Klaseak eta hitzaldiak euskaraz edo gaztelaniaz izango dira, eskaintzen dituzten irakasleen arabera.

24 orduko ekimen honen atarian, maiatzaren 7tik 8ra bitartean, hain zuzen ere, EHUko kanpus bakoitzean akanpada bana

burutuko da kode penal berriaren kontra agertzeko helburuarekin. 7an bertan, Ingenieritza Eskolan grafiti antimilitarista bat margotzeki ekingo diote ikasleek.

Xede berarekin, Gasteizko ikastetxeetako talde antimilitarista guztiek osatzen duten "Izokina" taldeak deiturik, maiatzaren 24an greba eta manifestaziorako deialdiak egin dira, Euskal Herriko beste hainbat hiritan egingo denaren antzera

Indarrean jarriko den kode penal berria Unibertsitateak ez aplikatzea da EHUko talde antimilitaristek, besteen artean, egiten duten eskari nagusienetarikoa; hau da, Ingenieritza eskolako ereduari jarraituz, intsumituei bertan lan egiteko aukera ematea eskatzen dute.



Zenbait
rehetasunek
biziki
jazten
dute

Ducci D96 Eredua- 7.550 Pta.

Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. punta puntazko modaren xarma.
MultiOpticasen Ducci 96ko, bilduma eksklusiboa da.
Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera.
Hurbil zaitez eta ezagutu ezazu.



Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu 3 hilabetez kargurik gabe.



Andre Maria Plaza Olagibel 33 (anbulategi aurrean) GASTEIZ

Mozkor larrientzako arreta berezia



LUIS GASTEIZKO DYAn lan egiten duten boluntarioetarikoa bat da eta nahiko sarri bizi izan ditu horrelako egoerak. Alfredo asko ezagutu

Larrientzako Logela (MLL) honetan.

88. urtean jaio zen zerbitzu hau eta DYA eta Udalaren babesa du. DYAren bolondresak

izan ditu. Iaz, 1995. urtean 250 lagun baino gehiagok bukatu zuten beren mozko-rraldia Mozkor

hemen dakarkizuegu bat eta "berria" da. Fregona bat aterako duzue, mesedez? Tira Alfredo, hemen nahi adina lo egingo duzu - DYAren Mozkor Larrientzako Logelara iritsi berri den udaltzainak hitz egiten du. Alfredo goizean Valentziatik iritsi den gizona da; erabat mozkortuta eta oso zikina dago.

- Zenbat denbora egon naiteke bertan? Zein ordutan ematen duzue bazkaria?-, galdetzen du Valentziarrak.
- Etxe hau lo egiteko da, ez dugu bazkaririk ematen. Erretzen al duzu? Hemen ezin duzu erre, gogoratu, eta txiza egin nahi baduzu hor, horma horren ostean, komuna daukazu-, azaltzen dio Luisek "bezero" valentziarrari.
- Hotz handia daukat -dio Alfredok koltxoian etzaten den bitartean- Jarri iezadazu beste estalki bat.

Eta Luisek jarri.

egunean 24 ordutan lan egiten dute eta Udalak egoitza mantentzen lagundu eta mozkor bakoitzeko diru kopuru finko bat ematen du. "Hutsune bat betetzeko sortu zen MLL gure elkartearen ekimenez. Hori baita gure filosofia, behar den arloan laguntzea, alkoholikoekin dela,



1996ko
*Brigada Uda
Internazionalistak*

Hurbil zaitez
herrietara

El Salvador
K u b a
Nicaragua
Guatemala
Mexico



San Bixente aldapa 2 1. esk
GASTEIZ 28 11 93

mendian dela, errepidean dela,... Hemen hartzen ditugunak gaixoak dira eta gaixo modura tratatu behar dira, baina mozkorraldiaz kanpo beste ezer ez badute ezin dira ospitalean geratu eta hor kokatu behar da gure lana”.

MLLra eramaten dituzten alkohoikoak, “beti ekarri egiten dituzte, inoiz ez dira etortzen”, errekupeatzeko behar duten denbora guztia eman dezakete bertan. Gehienak “ibiltzeko gai diren momentuan joan ohi dira. Denetik dago baina hona iristen diren gehienak ezagunak ditugu, beti berdinak dira. Eta ez dira eskaleak, etxera egoera horretan joan ezin diren lagunak baizik”.

Zezen plazaren alboko egoitzara heldu aurretik ospitaletik pasatzen dira. “Hona ez da inor sartzen aurrez ospitalean mediku batek ikusi

baino lehen. Mediku horrek gaixoak “mozkorral-di larria” baino ez duela ziurtatzen du, buruan kolperik edo antzeko konplikaziorik duen ala ez jakiten dugu horrela”. Gehienak botila besapean dutela iristen dira; kasu horietan lehen gauza alkohola komunitet behera botatzea izaten da.

Adin txikikokak ez dituzte onartzen MLLan eta, ahal dela, neska-mutil gazteak hartzea ekiditen dute. “Oso gogorra egiten da gurasoei deitu eta seme-alaba hemen dutela esatea. Beraz, koadrilakoen laguntzarekin ibiltzeko moduan jartzen ditugu eta etxeko atariraino lagundu”.

Drogazaleak ere ez dituzte hartzen: “Ez, drogazale batek mediku baten arreta behar du bihotzekoa izateko arriskua hor baitago. Guk ezin dugu ardura hori gure gain hartu”.

Zailtasunak aurreikusteko guardiako mediku bat eta ziurtasun sistema bat daukate DYAn. Bideo kamara bik logela osoa hartzen dute, horrela gelaren barruan egon gabe ere bertan gertatzen dena ondo ikusten da.

Egia esan, neska-mutil hauek egiten duten lana ez da batere atsegina. “Egin behar da eta egiten da baina egia da, ez da batere atsegina izaten inork botatakoa garbitzea eta ohizko mozkorrak badira beraien garbitasun

maila imagina dezakezu, ez?”.

Lana ezatsegina eta logela tristea baina bere zeregina betetzeko oso aproposa: Bost koltxoi lurrean, plastikoaz estalita eta mantak izkina batean. “Koltxoiek lurrean egon behar dute etortzen diren egoeran ohetik erori egingo lirakeelako. Eta koltxoiei plastikozko azala ez diegu kentzen bestela asko zikintzen direlako”. Ez da ez, hotel bat.

Jaietan zehar edo egun berezietan mozkor gehiago ikusten diren arren, DYAn ez da horrelakorik nabaritzen. “Hartzen ditugun gehienak ohiko alkoholikoak direnez, nahiko banatuta egoten da lana urte guztian zehar. Egundak aipatzekotan Gabon Zahar eguna aipatu beharko litzateke.”

Alkoholaren gaitzaren hedapenari buruzko berriak komunikabideetan ia egunero agertzen zaizkigun arren zerbitzu honek gero eta “bezero” gutxiago ditu. “Agian lagunen arteko elkar-tasuna da igo dena baina hemen gero eta jende gutxiago hartzen dugu. Kontutan hartu behar da, halaber, hemen bukatzen dutenak oso-oso gaizki daudela”. Ez dirudi arlo honetako lana gutxitzeak gehiegi kezkatzen dituenik DYako bolondresak, bestela ere lan nahikoa izaten baitute.

Leire Lopez de Aberasturi



Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia
 altzariak • apaingurak
 Florida, 35 - Tfn: 25 93 59
 GASTEIZ

ARABA gure lurra

 txapelketa


1.- Nola zuen izena argazkiko elizak, San Prudentziorena izan baino lehenago?

2.- Non jaio zen Alaveseko presidentea den Juan Arregi?

3.- Nongoa da jaiotzez Mardones musikaria?

APIRILEKO ERANTZUNAK:

1. Non ikus dezakegu argazkian agertzen den trikuharria? **BILARREN**

2. Zein zenbaki darama bizkarrean Titok, Alaveseko atezain titularrak? **13A**

3. Non jaio zen Felix Maria de Samaniego idazlea? **BIASTERIN**

Zinema edo futbolerako sarrerak irabaz ditzakezue



APIRILEKO IRABAZLEAK

Oskar Ruiz
Leticia Santamaria
Ainhoa Gallego



erantzunekin zuen telefono zenbakia bidali

Euskaraz aseguru

EUSKARAREN NORMALIZAZIO bidean oraindik hainbat aspektu jorratzeke dago. Hauen artean, aktibitate ekonomikoarekin zerikusia duten hainbat arlo, piskanaka-piskanaka euskalduntzen joan beharrekoak dira. Gauzak horrela, Iñaki Esnal Arrizabalagak aseguruaren arloa euskaratzeari ekin zion 1993.eko amaiera aldean. Egun, posible da Gipuzkoako zenbait tokitan aseguru saltzaile eta bezeroen arteko harremanak euskara hutsez burutzea, baita euskaraz idatzitako zenbait poliza jasotzea ere. Oraindik orain zeregin handia badago ere, euskararen presentzia aseguruaren alorrean handituz doa "poliki-poliki, baina gero eta azkarrago".

1994an, EKBren laguntzarekin, Iñaki Esnalek aseguruak euskaraz egokitu zituen eta horrekin batera hiztegi tekniko sinple erabilgarri bat ere moldatu zuen. Hasiera horretan, 'Lloyd Adriático' konpainiarekin besterik ez zegoen harremanetan eta euskaratutako aseguruaren etxebizitzaren arlora mugaturik zeuden.

Egun, Iñaki Esnalen enpresak beste zazpi aseguru konpainiekin egiten du



kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ

IRVSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

ko etorrera

lan, eta hauetatik laupabostekin euskaraz egiten du. Aseguru artekari hau baikor agertzen da hedatzen ari den joeraren aurrean; horrela, ekainarako beste hiru bat konpainien etxebizitza eta autoen gaineko aseguruak elebidunak izango dira eta datorren urterako 'Winterthur' aseguru-etxearen poliza guztiak euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira.

Euskararen egoerarekin kezkatutik badago ere, Ensal Arrizabalaga jauna aseguru artekaria da eta, beraz, "ikuspegia ez da euskararena bakarrik, baldintza onak eskaintzea baizik". Asmo bi hauek direla eta, konpainia ezagunengana jo du zabalkunde handiago baten bila eta, bide batez, hauen produktu onak saltzeko.

KANAKURI TALDEA

ENSAL ARRIZABALAGA

ASEGURU ARTEKARIA • D.G.S. F-1736

Prim 8 behea
20006 DONOSTIA

Tfnoa: 423639
Faxa : 429701

CD eta bideoak liburuen artera

IAZKO ABENDUAREN 15ean Gasteizko Kultur Etxeak abian jarri zuen bideo zinta eta disko konpaktuen mailegu zerbitzua. Zerbitzu berri honek oso harrera ona izan du erabiltzaileen artean baina oraindik hobera egiteko beharrean aurkitzen da; alde batetik, CD titulu gehiago eskainiz eta bestetik haurrentzako euskal bideoteka zabalduz, zeina ekainarako prest egongo den. Gaztelaniaz dibulgazio bideoak besterik ez badaude ere, haurrentzako euskal sailean hainbat komiki eta libururen bideoak eta pelikula ezagun ugari ere egongo dira euskararen ikaskuntza errazteko.

EGUNGO gizartearen liburuen mailegutza mugatuegia gelditu zela eta, kultur etxeek beren mailegu eskaintza areagotu beharrean aurkitu dira. Gasteizkoak Gabonetako oporren aurretik ekin zion proiektuari eta jadanik arrakastaz finkaturik dago. Orain arte, hilabeteko batez beste lau mila CD eta 2300 bideo eman dira maileguan.

Une honetan, bideoa maileguz uztea euskararen irakaskuntzarako beste elementu berri bilakatu nahi da. Zentzu honetan, Kultur Etxeko zuzendaria den Teresa Castrok euskal sailaren aldeko 'diskriminazio positiboa' aldarrikatzen du. Xede honekin, haurrentzako euskal bideoteka osatuko da filme berriak izango dituen, gaztelaniazko sailak ez bezala.


Florida Parkeko Kultur Etxetik ezer mailegatzeko bertako karneta zein udal biblioteketako karnetarekin egin daiteke, Udaletxea eta Foru Aldundia akordio

honetara iritsi baitira hiritarren mesederako.

Teresa Castrok biblioteca publikoak euskararen susperketarako burutzen duen beste ekitaldi batzuren berri emango digu. Besteak beste, udara baino lehen euskal idazlekin antolatu nahi diren sei hitzaldi. Topaketak euskaltegiei zuzendurik daude, hauek 35 idazle eta 227 libururen artean aukera dezaketelarik.



J A T E T X E A



Kutxillaria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

mostrongotxoak

*Txuletak azterketan: arte, teknika edo lotsaga-
bekeriaz aritzen ote gara?*



i kaslearen bizitza oso latza da. Inork ez gaitu konprenitzen. Stress-a, azterketak eta irakasleek bidalitako lanekin egunero borrokatu behar izaten dugu. Lanean jo eta ke aritu eta askotan ondorio nabarmenik ez, ordea. Baina dena dela, tunel ilunaren amaieran argitxo bat aurki dezakegu, txuletaren artea hain zuzen ere. Txuleta, azterketetan erabiltzen dugun tramankulu susmagarria da, arte bat alegia, urteekin gero eta hobeto erabiltzen dena. Etsaminak hurbiltzen ari direlarik, gure teknika hobetzeko asmoz, Koldo Mitxelena institutorea joan gara. Han izkina guztiak miatu ondoren, txuleten artea ondoen ezagutzen dutenak harrapatu eta honako galderekin erasotu ditugu:

Noizbait etsamintetan txuletarik erabili duzue? Zorte ona edo txarra izan duzue?

Zeintzuk dira txuleta teknika onenak eta txarrenak?

Gomendarria ote da trikimailu horiez baliatzea?

Azken batean, arte baten aurrean aurkitzen al gara?

ditut txuletak benetan lagungarriak baitira. Leku ezkutu eta arraro xamarretan jarri izan ditut irakasleak ez "moskeatzeko". Batzuetan erlojuaren atzean, eskuetan (betikoa), zapatiletan, estutxean, alkandoran, edota beturrekoen fundan (azken honek ez du inoiz hutsegiten). Batzuetan beste gelakideekin kodeak asmatzen genituen, hauek bai zirela genialak!

Ikastolan erabili izan

Harrapatzen bazaituzte... akabo! baina ohartzen ez diren bitartean... segi aurrera!

Leire, 14 urte

Nik OHOn ez nuen txuletarik erabiltzen baina Koldo Mitxelenara etorri nintzenean horietaz baliatzea beharrezkoa zela ikusi nuen. Ezinbestekoak ikusten ditut eta oraindik ez naute harrapatu.

David, 14 urte

Txuletak erabiltzea ona da eta azterketa gehienetan erabiltzen ditut. Historiako etsamin batean, hormako kortxoko beste paperen artean, bi folio jarri nituen. Tarteka, galderaren bat orrialdearen atzekaldean zegoenean, andereño atzera joan eta aldentzen zela aprobetxatuz, nire eserlekutik altxatu eta buelta ematen nion orrialdeari: 7'5 eko nota lortu nuen. Ondorioa, beraz, ezinhobeia izan zen. Beste batean, matematikako azterketa bat egiteko, ukondoan goma bat jarri nuen eta ukondotik eskumuturreraino beste bat. Azken gomaxo honen puntan paper bat lotu nuen, non formulak guztiak agertzen ziren. Gomatik tiratzerakoan formulak begiratu eta andereñoa etortzerakoan goma askatzen nuen formulak ezkutatuz. Metodo honek alde txarrik ere bazuen mina ematen baitzidan gomak, baina aprobetxarrien edozertarako prest nago!

Mayin, 15 urte

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Nire ustez txuletak egitea arte oso berezia eta zaila da. Txuletak egiteko ingenio handia izan behar duzu eta zailena, dudarik gabe, prestatutakoa azterketan atera eta erabiltzea izaten da. Ateratzen duzunean izerdi hotz bat sentitzen duzu gorputz osoan eta, batez ere, eskuetan. Metodo arruntena eskuetan edo mahaian idaztea izaten da. Posible da, era berean, besoetan edo "post it" orrialdeetan idaztea. Estutxean ere gai oso bat gorde dezakezu, miragarria da benetan: liburuak hartu, fotokopia txikiak atera eta plastifikatu egiten dira. Zailenak pergaminoak dira: paper luze tira bat da, non sartzen zaizun guztia idazten duzun bi aldetatik erroiloak eginez. Goma batekin sostengatzen dituzu, eta listo! Dena dela, nire gomendioa ikastea da.

Nerea, 14 urte

Aulkiaren bizkarraldean eskuinetik ezkerreara ikasgai guztia idatzi. Estutxean sartzen dugun izpilu batekin puntu egokia bilatu eta, horra hor, txuleta guztia izpiluaren islatzen da. Beste aukera bat da kalkulagailu zientifiko bateko memorian dena sartzea.

Erika, 15 urte

Azken errekursoko txuletak: arbelaren aurrean jarri, boligrafoz idatzi eta begiratu. Ondorioa: zortea ez tentatu eta batzuetan ikasi.

Itziar, 14 urte

Metodo asko daude baina azken irtenbidea albokoari erantzuna eskatu eta kopiatzea da; edo berak bertan egitea.

Alex, 15 urte

Nik batzuetan erabili izan ditut, andereño batzuk besteak baino azkarragoak baitira. Lehenengo txuleta egin nuenean, nire nebari laguntza eskatu eta ordenagailuko letra txikiarekin idatzi genuen. Estutxean gordetzea oso arrunta denez besoan itsatsi nuen. Oso ondo atera zen, baina gero besotik kentzeko... ikaragarriak pasa nituen!

Estibaliz, 15 urte

Badago metodo bat, inoiz erabili izan dudana, eta honakoa da: Tipex potearen pintzelean txuleta enroilatu eta Tipex erabiltzerakoan txuleta irakurri ahal duzu.

Mireia, 14 urte

Lorea Zurimendi



Umeak
zaintzen ditugu

GAUEZ

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42



ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



MIKO
izozkiak

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Elkartasun Bidaiak

g

ure mundu korapilotsu eta nahasi honetan elkartasuna adierazteko gasteiztar asko dira beste herrialdetan hilabete batzuk igarotzen dituztenak. Elkartasuna eta aukeratutako herrialdearen benetako ezagupena dira brigadista hauen helburu nagusiak. Komite Internazionalistak eta Askapena taldeengana hurbildu gara bidaiak hauei buruzko lehen eskuko informazioaren bila. Hurrengo lerroetan beraiek kontatutakoa irakurtzeko aukera duzu.



ELKARTASUN BIDAIK Iraultza Sandinistarekin batera hasi ziren iragan hamarkadan. Urte horietan Askapena eta Komite Internazionalistak bere lehenengo urratsak eman zituzten. Brigada hauek denborarekin asko ugaldtu dira bai jende kopuru aldetik, bai proiektu aldetik ere. Dena den, hasierako filosofia berari eusten diote: lekuan lekuko harremana zuzena izatea eta elkartasuna adieraztea dira helburuak. Elkartasun bidaiak ez dira bidaiak alternatiboak, ezta plazer bidaiak ere. Beste ezer baino lehen elkartasuna adierazi eta bertakoekin lan egitera joaten da bri-

gadista. Elkartasun proiektu baten parte-hartzaile zara eta proiektu horren garapena brigadistaren lana da.

Uda baino egokiagoa litzateke beste edozein urtaro baina, oporrak udan izaten direla eta, urte sasoi hori aukeratzeko dute gehientsuenek beste herrialdeetara abiatzeko. Brigadek oinarrian jendearen sentsibilizazioa lortu nahi dute eta beste herrialdeetan bizitako esperientzaren berri gure artean zabaltzea da beren eginkizunetarikoa.

Iaz Euskal Herri osotik Komite Internazionalistak-en laguntzarekin 120 lagun animatu ziren bidaiatzera eta 150 Askapena-

ren bitartez. Aurtan, bi taldeek, apirilean aurkeztu zituzten euren egitasmoak eta horien inguruko informazio osoa nahi duenak talde hauen egoitzetara jo dezake. Brigadista joandako gizon-emakumeek esandakoaren arabera, horrelako esperientzia bat izugarri aberasgarria da eta joaten dena berriz bueltatzeko gogoarekin itzultzen da. Zu ere animatzen zarela? Dudarik baduzu irakur ezazu zer dioten Guatemalan, Kuban, Irlandan, eta Ekuadorren egondako lau brigadistek. Bidai on.

Karlos Fdz de Betoño



zure egoitza berria Lejarreta kalean

HEGOALDE
euskaltegia.

Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ



e
g
n
e
k
o
m
e
n
u
a



Guatemala, Aitziber.

Animatu? Motxilan daramazu-naren arabera; turista eta Indiana Jonesen liburua etxean uzten baduzu, irekita bazoaz eta elkartasunez eta errespetuz jokatzeko gai zarela uste baduzu, bai.

Brigaden helburua, besteak beste, Kieko linearekin bat datorren herrialde zapalduen errealitatea, hurbiletik bizi eta ezagutzea da.

Azkenean, ordea, itzuli egin behar eta... ezin itzuli!

Idea atsegin duzula? Hara hor nire gomendioa! Ez duzula atsegin? Musu bero bat ezpainen! Mua!



Kuba, Puri.

Kuban bizi izandakoa gogora ekarrita, uste dut orduko esperientzia hain aberatsa izan zela, ezen jendea animatu berterik ez dut bere buruari auke-

ra bat eman diezaion bere baitan datzan iraultzaile hori eza-gutzeko, sentitzeko eta berigunez goatzeko.

Iraultzaren sehaskara joatea da iraultzailaren ametsa, bertakoe-kin mintzatu haien sentimen-
duak, beharrianak eta borro-
ka nork bere egiteko.

Besoak zabal-zabalik hartzen du mundu guztia bere baitan Kubak. Herri hori ekonomiko-ki kolonizatu nahi duenik ere ikus daiteke bertan: Atlantiar Ozeanoko alde honetatik joan-dako "burgesito" berriak dira horren adibide. Horrexegatik, hain zuzen ere, Kubari orain inoiz baino lotuago sentitzen naiz. Beraz, bada, hemendik animatzen zaituztet Kubari zuen elkartasuna adieraztera.



Irlanda, Diego

Iaz brigadetara joan nintzen, hain zuzen ere, Irlandara eta esan behar dut joan baino lehen oso zaila gertatzen zitzaidala han gertatzen zenaz jabetzea. Hala ere, interes haundia neukan Irlandako egoera ondo ulertzeko eta, bide batez, hango jendearekin harreman zuzena edukitzeko. Horregaitik ASKAPENara jo nuen eta prestakuntza baten ondoren Irlandara joan nintzen. Han ez nuen turismorik egin baina esan dezaket nola-bait Irlanda ezagutu nuela. Han eman nuen hilabete eska-sa oso aberasgarria izan zen. Alde batetik, Euskal Herrian jasotzen ari garen zapalkuntzaz mintzatu gintzaiei eta bestetik, guk asko ikasi genuen Irlandako borrokari buruz. Brigadista izanda, ikasi dut mundu honetan herri orok, gure Euskal Herriak bezala, borrokaren bat duela eta, hori dela eta, aurten beste herri bat eta beste borroka bat ezagutzeko asmoa daukat. Dagoeneko, ASKAPENAn udan briga-deetara joateko epea ireki da eta beste herri bat eta borroka bat ezagutzeko aukera edukiko dut. Horregaitik, aurten berriro itzuliko naiz!

Ekuador, Ana

Jakingo duzuenek, brigadista izateak ez du inolako zerikusirik ez turismoarekin, ezta



abenturarekin ere. Joan ere ez goaz inor salbatzera.

Ekuadorrera joango zareten brigadistek itxuraz lasai dagoen herri batekin egingo duzue topo, hango borrokak ez baitira armatuak, Latinoamerikako beste herrialde batzuetan bezala. Ekuadortarrak, ordea, borrokan ari dira indigenen poterea eta gizarteko mailarik apalenetakoen interesak defendatzeko, baita gizarte-kontrollean oinarritutako alternati-ba demokratikoak salatzeke ere.

Ekuadorrera iristen zaretene-rako, hauteskunde orokorrak egin berriak izango dira. Hango jendea gogotsu eta adoretu ibiliko da, eta "Uni-dad Nacional Pachakutik" alderdi politikoak, Askapena-ren babesa duenak, bere hel-buruak lortuak izango ditu; horiexek dira, beraz, gure nahiak.

Ekuadortarrak atseginak eta abegitsuak dira; beti pronto daude ingurukoei atsegin emateko eta lagunarte-giroan bizi-tzeko. Oso-oso herri langilea da, batez ere, bere askatasuna jokoan badago.

Langilea, borrokalaria gora-beherarik gabea eta solidarioa; halaxe ikusi dut nik Ekuado-

ELKARTASUN BIDAIK

Komite Internazionalistak

Guatemala, El Salvador, Nikaragua, Kuba eta Mexiko

Informazioa: San Bizente aldapa 2, 1 esk
Tel:281193

Askapenak

El Salvador, Euskal Herria, Irlanda, Palestina, Kuba, MexikoGuatemala eta Ekuador.

Informazioa: Kutxilleria 15 behe Tel. 280847

asmo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

Andaluziako zortzi probintziak etxe berean

g

asteizko Andaluziako etxea El Pilar auzoan kokaturik dago. Bertara joan eta elkarteko presidentearengana jo genuen gure asmoa azaldu eta berarekin solasalditxo bat egiteko asmoz. Baina, bera ez zela gauza horietaz arduratzen eta beste lagun batengana bidali gintuen, kultur eta harremanetarako arduradun den Agustin Salvadorrengana alegia. Antolakuntza ona dudarik gabe. Gure harridura aurpegia ikusterakoan "hemen bakoitzak bere lana egiten du" esan digu Agustinek azalpena eman nahian edo.



hirian antolatzen diren ekitaldietan ere parte hartzen saiatzen dira. "Gasteizen gaudenez ahalegintzen gara bertako jai eta ospakizunetan parte hartzen eta, aldi berean, gure aldetik zer edo zer prestatzen dugunean gasteiztarrek gurekin egotea desiatzen dugu".

Elkartearen sorrera garaiak gogoratu dizkigu Agustinek, eta bere ahotik hitzak arrapaladan ateratzen dira, erantzuna buruz ikasia duen ikaslearen antzera hitzeginez: "Zenbait ekintza aurrera eramanez ahal izateko lagun talde bat biltzen hasi ginen eta Andaluziako Juntarekin harremanetan jartzea erabaki genuen. Hauek, gure eskaerari eran-

tzunez, batzorde bat osatu eta elkarte bat sortzeko eskaintza egin ziguten. Horixe bera egin genuen eta harrez gero, hemen gabiltza.

Cofradia de Arriaga kalean alokatuta genuen lokal bat izan zen gure lehen egoitza. Egun, Panama kalean dugun etxea, ordea, bazkide guztion artean erosi genuen".

Hizketaldi luzearen ondoren, atseden piska bat hartzeko edo, egoitza erakutsi digu Agustinek. Kaletik sartu eta lehenik taberna dago, bere jangela eta guzti. Barnealdera joanez, tabernatik bereizturik, ekitaldietarako areto handia dago,

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo
platerekin*

Eguneroko Menua

Betiko kazuelatxoak

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

“Gure asmoa biltzea eta Andaluzian ospatzen diren festak guk hemen ospatzea da”

alde batean Rocioko Amabirjinaren irudia bere eskenatoki eta apaindura guzitekin ikus daiteke. Horiez gain, bi bulego eta kartetan jokatzeko beste gela bat ere badute.

Talde azpimagarriak

Seneca elkarteak hasieratik helburu nagusi bi izan ditu Agustinek dioenez: “Batetik, Andaluzia eta bere ohiturak maite ditugunok elkartzea eta bestetik, hegoaldean (Andaluzian) ospatzen diren festak guk hemen ospatu ahal izatea. Horrekin guztiarekin loturik gure folklorea eta tradizioak bizitzea da gure nahia”.

Aipatutako helburu horiek betetzeko, Seneca elkarteko bazkideek bultzatutako hainbat talde biltzen da Andaluziako etxe honetan. Besteak beste, bertako emakumeek sortutako koroa, Sueños del Rocio izeneko kantugileen taldea eta Raices del Sur dantza taldea aipa daitezke. Talde hauek elkartean bertan egiten dituzte gehienetan beren emanaldi eta erakustaldiak, baina, inork deituz gero, kanpoko festaren batera joateko ere prest izaten dira Agustinek esan digunez.

Horretaz gain, Gasteizko hainbat festatan parte hartzen dute. Ihauterietan, adibidez, azken hiru edizioetan “koplillak” saria eskuratu dute. Dena den, eurentzat egun garrantzisuenetariko bat otsailaren 13an ospatzen duten Andaluzia Eguna da. Egundorretako ospakizunetan, alaitasuna eta andaluziar giroa Gasteiza ekartzen saiatzen dira. Andaluziako jaiak

Guztiok dakigu Andaluzian festa askok erlijioarekin zer ikusia dutela, haien artean Aste Santua, Apirilako Feria eta Rocio eguna aipagarrienak direlarik. Seneca elkarteak erlijio kutsuko jai hauek ere ospatzen ditu. “Rocioko Ama Birjinaren Hermandadea” arduratzen da gai hauetaz eta urte osoko egitasmoa berak prestatzen du.

Guztietan garrantzisuena Rocio Eguna izaten da Agustinen iritziz: “Egun bat baino gehiago da. Bezperan “lunch” bat egiten dugu, gero gau horretan nahi duenak hemen, elkartean, afaldu eta ondoren Rocioko Ama Birjina kalera ateratzen dugu. Eguna amaitzeko berbena bat ere egiten dugu. Biharamonean karrozak ateratzen dira eta jende guztia andaluziar jantziekin (faralaea, camperoa...) jantzita Arriagako ermitara joaten da. Ermita aurrean egun osoan zehar hainbat ekitaldi burutzen ditugu, flamenco-rociera elizkizuna besteak beste”.

“Sevilla zaleren bat etortzen bada Betisekoa egiten dugu”

Jaiak eta ospakizunak alde batera utzi eta eukararekiko duten harremanaz itaundu diogu gure solaskieari. Euskararekiko duten jarrera ona da Agustinen ustez: “Orokorrean euskara onartzen da, baina helduei eta gazteei ezin zaie berdin exijitu. Gazteen artean ehuneko larogei euskaldunak dira edo euskalduntzen ari dira eta hori garrantzitsua da. Gazteenek hemen ikasi dute eta erabat integratu behar dute”.

Bukatzerakoan, bi izen ez ahazteko esan digu Agustinek. Alde batetik Santurtzin bere egoitza duen FARAE erakundea, Euskadiko andaluziako etxe erregionalen federazioa; beste aldetik, ALEA elkartearen berri eman digu. Andaluziako Zentroko gazteen elkarte da eta bazkideen semeek osatzen dute beren ekintza propioak antolatzen dituztelarik.

Amaitzeko bitxikeria bat kontatu behar dizuegu: elkarriketan zehar Betis futbol taldearen izena behin eta berriz aiatu du Agustinek: “Hemen jende gehiena Betis taldekoa da” esan digu azkenean eta guk inozoki zera galdetu diogu: “Eta Sevillako zaleren bat etortzen bada zer egiten duzue? Eta berak tente jarritz: “Ba, Betisekoa egiten dugu”.



TXAPELARRI
taberna



KV TXi kalean

Gasteizko Paperdenda Berria



/ 500 m²-ko papedenda.
/ Ikasmateriala
/ Opariak eta ofimatika
/ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxe: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

Martin Fiz: <maratoian hiruzpalau kilo eta zentimetro pare bat galtzen ditut>

a

buztuaren 4a: Gasteizen Zeledon eguna, Atlantan Fiz eguna. Arabako kirolaren historiak egun horretan du zita, Martin Fiz korrikalariak ohorezko orrialde bat idatzi nahi baitu bertan. Lagun jatorra da bera, hurbila, apala... gutxi dauden horietakoak. Gurekin Martin Fiz: Munduko maratoi txapelduna



Martin, gaur goizean Madrilen izan zara, arratsaldean Ajuria Enean... Bi sari berri poltsikora. Eta orain arratsaldeko zortziak direnean gurekin zaude Gasteizen. Hau bizimodua!

Bai, gogorra da. Azken hilabeteotan oso lanpetuta nabil, lehiaketa batetik irten eta beste batean satzen naiz. Sariak jaso, bidaiak, komunikabideak... Dena den, presioa handia denean Mendizabalara joaten naiz, han oihu egiten dut eta etxera berriez.

Atlantako Olinpiadetan urrea irabazten baduzu zure bizitza aldatuko da?

Urrea lortzen badut batek baino gehiagok bi txokor erre beharko ditu, lasterketa Zeledon egunean izango baita. Baina, ni ez naiz aldatuko. Hori bai, hogeitertan egindako lanaren saria izango litzateke. Neu egun bateko printzea.

Eta ez baduzu dominarik irabazten?

Jende askoren desiluzioa... Ez badut irabazten, zer egingo diogu; bizitzak aurrera jarraituko du.

Martin Fiz kirolaria luzerako dugu?

Orain 33 urte dauzkat. Hiru urte gehiago aurreikusten ditut. Nire entrenatzailea den Sabino Padilla, aldiz, baikorra da eta 38 urtetan jartzen du muga. Ez dut narraz ibili nahi.

GASTEIZ
PIPERMINA
ÐENÐA

arropa
eta
osagarriak



KUTXI, 81

ONGI ETORRI
xurruT

KUTXI 103
GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Kutxileria 23

LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ



Astrologi aholkularitza
Kirok eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Enneflexoterapia
Fhastanoak

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

“Barrutik gaisorik nagoela dio amak”

Munduko txapelketa irabazi zenuenean, Mercedes bat oparitu zizuten. Zer sentitzen du Forjas-eko langile baten semeak halako kotxe batean?

Aitari malkoak darizkio askotan. Bestalde, gure amak nik atletismoari uztea nahi du, argala ikusten nau eta barrutik gaisorik nagoela dio. Gurasoek badakite saria lanari esker etorri dela, haiek ere lan asko egin behar izan baitzuten gu aurrera ateratzeko.

Eta txapela eskuan duzula etxera itzultzen zarenean, zer esaten dizute?

Seul-etik itzultzerakoan, irabazitako diru kopurua esan nienean negar batean hasi zen aita. Oso xumeak gara. Forjaseko greba egunak, aurreneko zapatak... Euren ahalegina gogoan izango dut betirako.

42 kilometroko maratoni baten ostean, zelan geratzen da gorputza?

Egia esan, leher eginda zaude. Maratoia bezalako lasterketa batean hiruzpalau kilo eta altueraz zentimetro pare bat galtzen dituzu. Hala ere, txapeldunak bi edo hiru egun beranduago ordaintzen du egindako esfortzua, garaipenak galdutako indarra ematen baitizu.

Nik dakidanez, aberatsen semeek ez dute maratoirik egiten. Maratoia futbola eta saskibaloia baino gogorragoa da?

Futbola eta saskibaloia ere gogorak dira, baina korrikalariak ezberdinak gara. Lasterkariak indartsua, langilea izan behar du. Maratoiko ia kirolari guztiok etxe umiletatik gatoz.

Gasteizen helduentzako ikastetxe bat dago. Paulo Freire du izena. Hara ere azaltzen zara...

Gustora nago ikasten. Gainera kirola dela eta, ikasteari utzi behar izan nion. Egun ezinbestekoa bada ere, jende askori ikastetxera doala aitortzeak lotsa ematen dio, besteek zer esango duten, gizonkeria... OHO egin nuen, baina orain ikasitakoa gogorazten dut berriz. Gasteizera heltzen naitzen bakoitzean, bitan pentsatu gabe, Paulo Freirera noa. Hau gutxi balitz hango emakumeek asko maite naute.

Orain urte batzuk esan zenidan gutxitan agertzen zinela Araban gehien irakurtzen den egunkarian. Munduko txapelketa irabazi zenuenean ordea, azalean zeunden...

Antza danetz egunkari horretan agertzeko oso gauza handiak egin behar dituzu, baina ez bakarrik azalean, kirol orrialde-

tan agertzeko ere bai. Bizitza bezalakoa, batzuek laguntzen dizute eta beste batzuek ez. Hemen erregea futbola da eta Baskoniak ere jendetza mugitzen du. Hori horrela izan da ere, beste kirolari batzuren ahalegina ere aintzakotzat hartu beharko luke-te.

Zer esaten dizute arabarrek kaletik?

Jendeak geldiarazten nau. Ni ez naiz beste batzuk bezalakoa, jendearengandik hurbil egotea gustatu izan zait beti. Agian, horrexeagatik, batzuek ez dute nire lana aintzakotzat hartzen. Seulen oso desberdina zen, han jainkoa nintzen.

Noizbait entzun dizut euskara ikasi behar duzula...

Egia da. Nire semea ikastolan dabil, eta etxeko lanak egiten lagundu nahi diot. Datorren urtean hasiko naiz.

Ismael Diaz de Mendibil

Martin Fizen hamar txapelak:

- 1.- Mendizabalan irabazitako lehen txapela
- 2.- Arabako Kros txapelketa
- 3.- Euskadiko Kros txapelketa
- 4.- Espainiako Kros Txapelketa
- 5.- Txapeldun iberoamerikarra
- 6.- Europako maratoni txapelketa
- 7.- Munduko maratoni txapelketa
- 8.- Seuleko txapela
- 9.- Rotterdameko maratoia
- 10.- Gainerako txapel guztiak



**MAIATZAREN
25ean**

**FORU
ENPARANTZAN**

*etor
zaitez!*



IKAPERIA

*arratsaldeko
Setatik aurrera*

- artisauak
- gaiteriak
- buruhandiak
- antzerkia
- trikitilariak
- txistulariak
- hankapaluak
- txarangak
- jolasak
- ...



Ehun kilo & Soziedad Alkolika



ez dira berri-berriak; neguan kaleratuak izan ziren. Hala ere disko horiek ez dute oraindik beren hasierako indarra galdu. Beraiek dira une honetan Euskal Herriko rock talde garrantzi-tsuenetarikoak. Hona hemen Ehun Kilo eta Soziedad Alkolikakoen azken diskoen kritikaxoa.


Soziedad Alkolika: "Ratas"

S.A.RENA oso gutxitan gertatzen den fenomeno da. "Intoxicación Etílica" beraien estraineko maketak, 90.ean argitaraturikoak, "trash" musika motaren jarratzaile asko erakarri zituen gure artera. Soinu gogorrak, kitarak distorsioz beterikoak, bonbo bikoitzak eta ahots guturalak.

Eta egun, lau diska eta gero, fenomeno finkatu egin da. Atzean gelditu zaizkigu "S.A.", "Feliz Falsedad", "Y ése que tanto habla..." izeneko lanak. Orain, 1995an "Ratas" izeneko



informa
zaitez
æk



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

Jose

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

diskoari iritsi zaio garaia.

Disko honek ez du apurketarik ekarri orain arte erakutsitako estilo horrekin. Betiko moduan sentitzen dute musika. Metala, Punk eta Hard Core-a lagun dituzte oraindik ere. Abesti bateko hitzetatik ateratako esaldi batek zera dio: "Kontuz ez bagabiltza, zapalduak gorrotatzera eta zapaltzaileak maitatzera behartuko gaituzte komunikabideek".

Garbiago esan al liteke? Nola ote? Sociedad Alkohólika-k, "Ratas.

Ehun kilo: "Esaiek..."

BETIDANIK heavyaren parean ibili ohi den talde elgoibartarrak badaramatza bost urte Euskal Herriko rock 'n rollean leku inportante bat betetzen. Hala ere, askoz atzerago jo behar dugu boskote honen sustraia topatu ahal izateko. 80. urtetik 88. era bitartean Jonek, Camilok eta Jabik "Napalm" taldearekin ikasi ahal izan zuten zer zen eskenatoki baten gainean egotea. Maketa bat ere gauzatu

zuten baina ez zuten kaleratzea lortu. Azkenean taldea desagertu egin zen; ez ordea, rock and roll latzaren ondorian bizitzeko asmoa.

Bi urte geroxeago Ehun Kilo proiektua indartzen hasi zen eta Napalmen ibilitakoei beste bi lagun batu zitzaizkien: Iturrino eta Kristian. Hortik aurrera Ehun Kiloko ibilera ez da etengo.

91ko abenduan lehenengo kontzertua, 92ko otsailean arrakasta handiko maketa, eta 93an lehendabiziko diskoa: "Euli Artean".

Orain bigarrenak, "Esaiek..." izenekoak, lehenengoaren ezaugarriei eusten die baina soinu konpaktoagoa eskuratuz. Indartsuagoak, tinkoagoak eta zuzenagoak datozkigu oraingo honetan Ehun Kilo taldeko mutilak. Ez dute inolaz ere heavyaren filosofia ahaztu eta, ondorioz, estribilo borobilak edota kitarra eta ahots zorrotzak ez dira falta. Hitzak, musikaren arabera: gogorak, intsumisioaren aldekoak, zapalkuntzaren kontrakoak...

Hementxe bada Ehun Kiloren azkena: "Esaiek..."

Txabi Arnal Gil

Flash-ak

- ❑ M-CLAN talde murziarrak lehenengo diska kalean dauka, "Un Buen Momento". Orain gutxi Gasteizen ikusi eta entzun ahal izan genituen. Zuzeneko ezin hobea, disko bikaina.
- ❑ GOR argitaletxe nafarrak Manolo Kabezaboloren estraineko CD-a kaleratu du. Hogei abesti eta Euskal Herrira bueltatzeko asmoa.
- ❑ Beer Mosh-ekoak Lorentzo Records estudioetara sartu dira euren hirugarren diskoa izango denari ekiteko asmoz. Izenburua erabakita dago: "Injusta Presión". Dena ondo ateraz gero udaran dendatan topatuko dugu.
- ❑ Laster batean ere Urtz taldeko mutilek beren hirugarren lana eskainiko dute.
- ❑ MOC eta DDT-en laguntzaz, "Grita Insu-misión" kasette bikoitza salgai. Berrogeita zazpi talde, hiru ordu militarismoaren kontrako martxaz blai. Ez galdu!

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



AEK aekanpada

BESTE URTE batez, AEK koordinakundeak maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean AEKnapada antolatu du. Normalean Korrikarik ez dagoen urteetan egin ohi da AEKnapada eta urtengo edizioa, aurreko biak bezala, Dimako aireportu zaharrean izango da. Izenak berak dioenez, hiru egunez luzatzen den akanpada erraldoia da AEKnapada. Milaka izaten dira hiru egunak bertan emateko asmoz denda ezartzen duten euskaltzaleak, eta beste hainbeste AEKnapadak eskaintzen dituen kultur ekitaldi ugarietan parte hartzera AEKnapadaren gunera hurbiltzen direnak. Aurten AEKnapadak bi gune nagusi izango ditu. Bata kultur topagunea izango da eta bestea antolatu diren ekitaldietarako

erabiliko da. Ohi bezala ekitaldi ugari izango da egun horietan. Gauetako kontzertuak; antzerki tailerra, eskulan tailerrak; zinema, arratsaldetako kantaldiak e.a. Aukera paregabea da, beraz, toki desberdinetako euskaldunekin harremanetan jartzeko, hiru egunez euskaraz bizitzeko eta gure hizkuntzaz ekoizturiko kulturaren adierazpen garrantzitsuez gozatzeko AEKnapadak eskaintzen duena.

Otamendi Prudentzio Deuna bertso final aurreko lehena

APIRILAREN 20an izan zen Prudentzio Deuna eta Estibalizko Ama bertso

txapelketaren final aurea Aguraingo antzokian. Puntuaziorik altuena Asier Otamendik atera zuen eta berarekin finalerako sailkatu zirenak Rikardo Gonzalez de Durana, Eñaut Agirre, Asier Iriondo, Dani Castaño eta Zigor Enbeita izan ziren. Finala, maiatzaren 5ean izango da Gasteizen Florida kultur-etxean. Hala ere finalera bitarteko bidea nahiko luzea izan da. Lehenbizi Laudio eta Koldo Mitxelenako instituetako ikasleek txapelketa bat egin zuten. Aitziber Perez de Karkamok irabazi zuen eta berarekin batera beste bi ikasleek Prudentzio Deuna eta Estibalizko Ama bertso txapelketako final laurdenean hartu zuten parte. Bertan, bederatzi bertsolari aritu ziren eta hauetariko lau final aurrerako sailkatu ziren iazko finalistekin bertsotan egiteko. Beraz, ikus daiteke emari handikoa dugula Araban bertsolaritza.

Sonia

SONIA Saiz 18 urte bete berri dituen neska polita da. Miss Araba titulua eskuratu ondoren Espainiako Miss lehiaketan izan zen Arabako ordezkari gisa. Lehiaketa horretan parte hartzeak itxita zituen hainbat ate zabaltzeko balio izan dio eta ilusioa handia du pasarella eta modaren mundu distiratsu horretan lan egin eta arrakasta lortzeko.

Noiz eta nola hasi zinen modaren mundu horretan?

Txikitandik oso polita iruditzen zitzaidan modaren mundua: pasareletako moda desfileak batez ere. Horrela, bada, Gasteizen neskentzat modelo agentzia bat zegoela jakin nuenean, bitan pentsatu gabe, zuzen-zuzenean bertara jo nuen. Han, neurriak hartu zizikidaten, ikastaro bat



APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Saiz:

<PASARELAN MUGITZEAK LILURATU EGITEN NAU>



Zergatik aurkeztu zinen Miss lehiaketara?

Aspaldidanik nerabilen buruan ideia hori baina ezinezko zitzaidan parte hartzea 18 urte ez nituelako. Azkenean, oraindik 17 urte nituela parte hartzen utzi zidaten eta irabazi egin nuen. Ondoren, irabazterik ez izan arren Espainiako lehiaketan izan nintzen. Nire helburua, hortaz, nire imajina promozionatzea eta Madrilen lanen bat aurkitzea zen eta gauzak ederki atera zitzaizkidan. Madrileko agentzia batekin lan egiteko bi urterako kontratu bat lortu dut.

egin nuen eta harrez gero lanean hasi nintzen; lan asko egin dut.

13 urte besterik ez nituela jo nuen agentzia horretara. Komenigarria da ahalik eta lasterren hastea, ikasi egiten duzulako eta horretara errazago jartzen zarelako. Niri oso ondo etorri zait hain gazte hasi izana Miss Araba lehiaketarako.

Zer ikasten da modelo-agentzia batean?

Ibiltzen ikasten dugu, kilometroak eta kilometroak egiten ditugu horretan. Eskuak eta behatzak nola kokatu; burua, lepoa edota gerriak mugitzen ikasi, posturak, poseak, itzuliak... Pasarelako teknikak ikasten ditugu oro har.

Kanpotik ikusi ohi dugun bezain polita da modeloen bizimodua?

Ez du zer ikusirik. Espainiako Miss lehiaketak 9 egun iraun zituen eta oso gogorra izan zen. Han zaudenean kontrola gogorra eta zorrotza izaten da. Goizean goiz jaiki eta berandu oheratzen ginen. Gainera egun guztian batetik bestera ibili behar izaten genuen. Azkeneko leher eginda amaitzen genuen.

Dena dela, gauza politak eta une gozoak ere izaten dira horrelakoetan. Toki berriak ezagutzen dituzu, lagunak egin ditzakezu eta esperientzia bezala oso positibotzat jotzen dut.

Zaila al da modelo izatea?

Konpetentzia izugarria dago eta prest egon behar duzu edozerri eta edozeini aurre egiteko. Zutaz aprobetxatzen saiatzen den jende ugari dago eta horiei aurre egiten jakin behar duzu. Askok pentsatzen dute gure lana beste zerbait dela eta erre-alitatea oso bestelakoa da.

Zertarako balio du Miss Araba tituluak?

Batez ere Gasteiztik atera eta lana aurkitzeko balio du. Espainiako miss lehiaketan egoteak ate asko irekitzen ditu, jende askok ikusten zaituelako eta ondoren lan aukerak sortzen direlako. Eta hori oso interesantea da.

Geroari begira zer egin nahi duzu?

UBI bukatu eta karrera bat hasi nahi dut. Zalantzan nago oraindik eta ez dakit ziur zer egingo dudan. Bestalde, madrilen edo lanen bat izanez gero gustora arituko nintzateke.

Modaren zein arlo duzu gustokoa?

Dena gustatzen zait baina gehienbat pasarela. Jantziak mugitu eta luzitzea zirraragarria da. Pasarelan mugitzeak liluratzen nau.

Soniak, dudarik gabe, guztiok ezagutzen ditugun top model horietariko bat izatearekin amets egiten du. Gogoa eta ilusioa behintzat ez zaizkio falta.

Bote prontoan

Gasteiz gustoko hiria duzu?

Uff, izugarri gustatzen zait.

Martxa nahi duzuenean, nora?

Alde Zaharrean, Aldapan, Swin-en... eta antzeko tokietan. Martxa dagoen lekuetan.

Zein duzu janaririk gustokoa?

A ze galdera! Denetik. Sukaldean aritzea ez; baina jatea, asko gustatzen zait.

Eta edaria?

Gasik gabeko ur minerala. Beno, inoiz edo behin edateko, txanpaina eta ardo gorri on bat ere bai.

Euskararekin zelan?

Saiatzen naiz baina ez da bate-re erraza. Ikasten ari naiz.

Miss Arabarekin ligatzea erraza al da?

Ez dakit mutilei galdetu.

Irakurritako azken liburua?

Manu Leginecheren El viaje prodigioso, oso interesantea da.

Zerk kezkatzen zaitu?

Une honetan ikasketak dira nire kezka nagusia, UBI gainditzea alegia. Baina munduko-arazo larriek ere kezkatzen naute.


Zure ilusiorik handiena?

Txikitandik beti esan izan dut nire nahirik handiena ama izatea dela, familia bat izatea. Eta top model bat izatea ere, noski.



**SIDRERÍA
KUPELTEGI**
APARKALEKUA • TERRAZA
Gasteiztik 3 km.-tara. Egunero irekia
01194 LASARTE (Araba)
☎ 13 06 27





DANOK ONAK

gastronomikoan



Danok-onak elkarteak Andaluzia kalean dagoen elkarte txukun bat da. Elkarre honen egoitza hasieran Zalburu kalean

zegoen baina, duela hamasei urte inguru, lokala alokatuta zegoela eta, talde batek handik alde egitea erabaki zuen. Denak ez

ziren joan, ordea, "batzuk hor geratu ziren" eta "Hemen obenak" elkarteak sortu zuten.

Danok-onak elkartera sartu bezain pronto sukaldetik zetorren usain gozoa nabaritu genuen: elkarteko bazkide batzuk afaria prestatzen ari ziren. Garagardo pare bat atera eta argazkilariak bere lana egiten zuen bitartean, nik, Javier Zabaleta Danok-onak elkarteko kideari galderak egiteari ekin nion.

NOLA ETA NOIZ SORTU ZENUTEN DANOK ONAK?

Hemen, oraingo leku honetan, 16 urte daramatzagu, 1979 urtean etorri baikiinen. Lehenago beste toki batean geunden, baina batzuk hona etortzea erabaki genuen eta han geratu zirenek beste elkarte bat osatu zuten.

• AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA •

VII. San Prudentzio Bertso Saria

FINALA

Maiatzaren 5an, igandea
Gasteizen Floridako Kultur Etxean
goizeko 11etan

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

**ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA**

GEU ❁

gure bertsolariak bertso saioa

- Ricardo Glez. de Durana
- Zigor Enbeita
- Oihane Perea

Judimendi Gizarte Etxean
Maiatzaren 25ean
Goizeko 12 t'erdietan

GEU rekin mendira

eguna eta ordua
egiaztatzeko 22 21 53
telefonora deitu.

*maiatzaren 26an,
igandea*

VALDEREJO Puror ibaiko menditarteak

IRTEERA:

goizeko bederatziretan, Prado kalean,
Txapela tabernaren aurrean. Autoz
joango gara.

ITZULERA:

hirurak edo laurak aldera

IBILBIDEA:

Lalastra. Erribera, Herran, Erribera,
Lalastra.



elkarte

Honera etorri ginenean, elkarteak zutik jartzeko lan osoa bazkideen artean egin genuen.

ZENBAT BAZKIDE ZARETE?

Hasi ginenetik 29 izan gara, nahiz eta 24 bazkidek fundatu zuten elkarteak. Egun beti bezala 29 gehi bat gaude. Azken hori erreserba moduan dago, norbaitek huts egiten badu edo. Gainera orain erreserba plaza horrek ez du jaberik.

ETA ZERGAITIK BETI 29 ETA EZ BESTE KOPURUREN BAT?

Estatutoetan 42 ipini genuen, baina geroago ondo geundela ikusita, horrela uztea erabaki genuen. Bestalde kopuru bakoitia izatea komeni da. Izan ere, eztaibadaren bat sortuz gero beti alde batek besteak baino botu bat gehiago izango lukeelako. Bestela, gerta liteke erabakiren bat hartu beharra izatea eta berdinketa egotea.

URTE GUZTI HAUTAN ALDAKETARIK

IZAN DA ZUEN ELKARTEAN?

Ezer gutxi aldatu da. Orain urte batzuk lokala haunditu genuen, atzealdean bodega bat egin eta ardoa ondo gordeta edukitzeko. Gainera bitxikeria gisa zera esango dizut: lokal hau erosi genuenetik birbaleraturik gabe dago, ezin erabil daiteke inbertsio gisa. Gaur saltzekotan, orain dela 17 urte zuen prezio berbera du.

ESAN DUZUNAGATIK EZ DAGO EMAKUMERIK BAZKIDEEN ARTEAN. SAR AL DAITEZKE HONA?

Bai, emakumeak, larunbatetan, igandetan eta jai-egunetan sar daitezke, baita abuztu osoan zehar ere. Dena den, zu adibidez, zure neskarekin etorri bazina ez zatekeen arazorik izango. Eta ospakizunen bat dela medio edo antzeko beste arrazoen batengatik bazkideren batekin emakumeak badatoz ez dute sartzeko arazorik.

Afaltzera edo bazkaltzera etortzen badira, beraiekin datorren bazkideak mahai mixtoa erreserbatu behar du. Beste arau bat ere badugu: emakumeak ezin dira sukaldaria sartu. Baina hor ere, egoeraren arabera, malguak izaten gara.


EUSKARAREKIN HARREMANIK BADUZUE?



Ez, izena besterik ez. Beno lehen bazegoen euskalduna zen bat edo beste, baina orain gaudenon artean ez dago euskaraz dakienik, zertxobait egiten duten galiziar eta nafar bat salbu.

Karlos Fdez. de Betoño

• AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA •



UDALEKUAK 1996

INSKRIPZIOAK:
MAIATZAREN 6tik 15era

Arabako Foru Aldundia
Gaztediaren Foru Erakundea
Probintziako Plaza, 5
23 17 82

8. KULTUR ASTEA



ASTELEHENA, 13

'Igurtz nazazu
berriro, laztana'

ipuin, poesia eta kantu-
emanaldia
goizeko 11'30etan eta
arratsaldeko 8etan
Landatxon

ASTEARTEA, 14

Umoreari buruzko
hitzaldiapuin, poesia eta
kantu-emanaldia
arratsaldeko 8etan
Landatxon

ASTEAZKENA, 15

'Iritzi-Miritzi' egungo
gaiei buruzko
solasaldia arratsaldeko 8etan
Landatxon

OSTEGUNA, 14

Euskal laburmetraiak
goizeko 11'30etan Guridi
Zinemari. 300 pzt.

Antzerkia: Gasteiz
Taldearen 'Aurpegi
atzekaldea'

arratsaldeko 8etan Aranako
Gizarte Etxean. 300 pzt.

OSTIRALA, 17

Jaialdia
Gaztetxean
gaueko 9etatik aurrera.
300 pzt.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN


"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



DUTKAREN ARRISKUAK





Arabako aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 15 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47-14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

